

Apirilaren 17an Mahai Negoziatzailea izan genuen eta bertan hainbat gai landu genituen. Hasteko, Administrazioak Lan Hitzarmeneko testu proposamen berria aurkeztu zigun, sindikatu guztien ekarpenak jaso ondoren. Eskatutako aldaketa batzuk txertatu dituzten arren, proposamena oraindik ere oso urrun geratzen da gure aldarrikapenetatik. STEILASek hainbat eskaera egin dituen arren, ezinbestean hiru aldagai hauetan hobekuntzak egitea eskatzen du:

- Ratioak: bi jardun oso gelako.
- Urteko eta asteko lan orduen murrizketa langile guztientzat.
- Eroste ahalmenaren galera berreskuratzeko baliabideak.

Bestalde, bi akordio partzial aurkeztu zizkiguten (atxikituta STEILASBERRIarekin):

- **60 urtetik gorako hezitzaileen arreta zuzeneko jardunaren murrizketa (52. artikulua).**

Edukia onuragarria da, hezitzaile guztiei ahalbidetzen die erretiro partziala hartzeko aukera. Hau da, 60 urterekin arreta zuzeneko bi orduko murrizketa (orain arte bezala) eta 63 urterekin heren bateko murrizketa hartzeko aukera egongo da, ikasturte bukaeran metatzeko eskubidearekin. Tamalez, kudeaketa langileak hobekuntza honen barne sartzeko eskaera ez dute onartu, STEILAS sindikatuak eskatu arren.

- **Ekoizpenagatiko kontratazioa (Lan metaketak) eta lanpostuen estrukturalizazioa.**

Enpresaren azken proposamen bat jaso genuen. Orain, 2 aste baino gutxiago falta direnean azaroan egindako lan metaketak amaitzeko, presaka eta urgentziaz proposamen berri bat jarri ziguten mahai gainean: lan metaketa kontratuen gehieneko iraupena 11 hilabetekoa izatea.

Honek langileen kontratuak luzatzeko aukera emango du eta honekin batera haurreskoletako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ere, familientzat, haurrentzat, ... onurak sortuz.

Horretaz gain, akordioan lanpostu horietako batzuk estrukturalak bihurtzeko mekanismoak jasota daude. Hain zuzen ere, "haurreskola batean bi urtez jarraian urtarrilean matrikula hazkundera dela eta, ekoizpen beharregatiko kontraturik baldin badago behar hori egiturazko beharra dela ulertuko da eta hurrenagoko irailerako lanpostu zerrendan gehituko eta hornituko dira".

STEILAS sindikatuaren betiko eskaera lanpostuen zerrenda handitzea izan da, lanpostu estrukturalak sortzea, alegia. Akordio honek hori ahalbideratu dezakeela argi dago, baina badakigu lan hitzarmenean ere aldaketak sartu behar direla honen eraginkortasuna bermatzeko. Beraz, horren alde borrokan jarraituko dugu.

Bi akordio hauek azken momentuan jaso arren eta ekarpenak egiteko aukerarik ez izan arren, lanketa sakona egin dugu eta onurak ekarriko dituztela baloratu dugu. Hori dela eta STEILASEk bi akordioak sinatu ditu.

Aurrekoaz gain, beste gai batzuk jarri ziren mahai gainean:

- **Esleipen telematikoa** egiteko plataformaren inguruan (Ordezlagunea) oinarritzko informazioa helarazi digute eta orain sindikatu bakoitzak horren inguruko ekarpenak egin ahalko ditu.
- **Lekualdatze lehiaketa** aurten egiteko asmoa plazaratu zuten, baina informazio gehiago ez ziguten luzatu.
- **Kudeaketa langileen meritu lehiaketa** aurrera doa.

Lan asko daukagu oraindik, hala ere Lan Hitzarmen duin baten alde borrokan jarraituko dugu!



**AKORDIOA, HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO II. HITZARMEN KOLEKTIBOAREN
12.4 ARTIKULUARI IDAZKERA BERRIA EMATEKOA (HITZARMEN KODEA
8602535 ZK)**

Eibarren, 2024ko apirilaren 17a

BILDUTA

Haurreskolak Partzuergoaren aldetik:

Xabier Aizpurua Telleria eta Eugenio Jimenez Ibañez, Haurreskolak Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordearen kide gisa

Langileen aldetik:

Hiart Cabrera Ansola, Haurreskolak Partzuergoan ordezkartzaren %53,19 duen LAB sindikatuaren ordezkari gisa.

Sonia Perez Arce, Haurreskolak Partzuergoan ordezkartzaren %29,79 duen STEILAS sindikatuaren ordezkari gisa.

ADIERAZI DUTE:

Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuak, Lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurrienak, Langileen Estatutuaren 15. artikulua aldatu zuen eta ezarri iraupen mugatuko lan-kontratuak ekoizpen gorabeherengatik edo langilea ordezkatzeko soilik egin ahal izango dela. Iraupen mugatuko kontratua ekoizpenaren inguruabar horien ondorio denean, kontratuaren iraupena ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan. Hala ere, aukera ematen du kontratuaren gehieneko iraupena urtebetera arte luzatu ahal izateko sektoreko hitzarmen kolektiboaren bidez.

Haurreskolak Partzuergoak 0-2 urte bitarteko haurrei ematen dieten zerbitzuaren berezitasuna dela eta, besteak beste, indarrean sartu berri den doakotasunagatik, matrikulazioaren gorabeherak ezin aurreikusi daitezkeenez edota premia bereziak dituzten haurrei arreta egokia eskaintzeko, aldeek egoki ikusten dute ekoizpenagatik kontratuen iraupena hamaika hilabetera arte luzatzea.

Edonola ere, behin-behineko langileriaren tasa gehienez ere %5ekoa izan dadin, matrikula hazkundearengatik haurreskola jakin batean mota horretako kontratuak bi urtez jarraian burutzen badira, lanpostu hori egiturazkoa dela ulertu behar da eta ez aurreikusi ezin den ekoizpenagatikoa.

Horrenbestez, goian adierazitakoa kontuan izanik, honako erabakia hartu dute:

AKORDIOA

1.- Ekoizpenagatiko lan-kontratuen aldia luzatzea.

Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. Artikuluak hauxe dio:

"15. artikulua. Lan-kontratuaren iraupena.

1. Lan-kontratua mugagabetzat joko da.

Iraupen mugatuko lan-kontratua produkzioaren gorabeherengatik edo langilea ordezteagatik bakarrik egin ahal izango da. Behin-behinekotasunaren arrazoi justifikatutzat jotzeko, beharrezkoa izango da kontratuan zehaztasunez adieraztea aldi baterako kontratazioaren kausa gaitzailea, kontratua justifikatzen duten inguruabar zehatzak eta aurreikusitako iraupenarekin duen lotura.

2. Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, produkzioaren inguruabartzat hartuko da jardueraren aldian behingo eta ustekabeko hazkundera eta gorabeherak, enpresaren ohiko jarduera izan arren, eskuragarri dagoen enplegu egonkorren eta eskatzen denaren artean aldi baterako desoreka sortzen dutenak, betiere 16.1 artikuluan jasotako kasuei erantzuten ez badiete.

Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileen kasuan, hezitzaile finkoez gain, badira beste behar batzuk haurren hileroko matrikulazioaren baitakoak.

Hori horrela izanik, Langileen Estatutuaren 15. Artikuluak berak aukera ematen du Sektoreko hitzarmen kolektiboaren bidez, kontratuaren gehieneko sei hilabeteko iraupena urtebete arte luzatzeko.

Aurrekoari jarraituz, Haurreskolak Partzuergoaren 12. artikulua 4. puntua aldatzea **erabaki da**, honela idatzita geratuko dena:

"Matrikulazioaren gorabeherak aurreikusi ezin daitezkeenean, pertsonal beharrak, salbuesenez, ekoizpen gorabeherengatiko kontratuen bidez beteko dira.

Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 15.2 artikulua arabera egindako lan-kontratuak gehienez hamaika hilabetekoak izango dira, hamabi hilabeteko epean. Epe hori kontatzen hasten da kontratua ahalbidetzen duen arrazoia edo egoera gauzatzen den egun berean eta haurreskolaren azken lanegunera arte luzatuko da, premia berezia duten haurrak artatzeko kasuetan izan ezik. Kontratu horiek haurra haurreskolak dagoen bitarteko iraupena izango dute.

Horrelako kontratuak egin ahal izango dira ikasturtean zehar matrikulazioen kopuruak gora egiten duenean eta Haurreskoletako momentuko beharren arabera.

Hala ere, Haurreskolak Partzuergoko zentro batean urte bateko urtarrilean matrikula hazkundera dela-eta, ekoizpen beharregatik kontraturik baldin badago, eta hurrengo urteko urtarrilean berriro kontratu mota horren beharra balego, behar hori egiturazko beharra dela ulertuko da eta hurrengo irailerako lanpostu zerrendan gehituko eta hornituko dira.

Zenbaketa horretarako 2024ko urtarrileko egoeratik abiatuko da eta ez dira kontuan izango arreta bereziei erantzuteko egindako ekoizpenagatiko kontratuak.



Haurreskolak Partzuergoko egiturazko lanpostuetako behin-behineko langileriaren tasa gehienez ere %5ean mantenduko da"

Akordio hau sinatzen da Haurreskolak Partzuergoaren mendeko lan-legepeko langileentzako 2008ko Hitzarmen Kolektiboaren gainerako artikuluen negoziazioarekin jarraitzearen kaltetan izan gabe, eta indarrean sartuko da sinatzen den hurrengo egunean.

Elena Aizpuru Segurola eskuordetzen da akordioaren izapidetzea egiteko lan-agintaritzaren aurrean.

Eta hala jasota gera dadin, eta aldeak ados daudela egiaztatzeko, bi aldeek sinatu dute:

Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza
Batzordearen aldetik:

Sindikatuaren aldetik:





**AKORDIOA, HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO II. HITZARMEN KOLEKTIBOAREN
52 ARTIKULUARI IDAZKERA BERRIA EMATEKOA (HITZARMEN KODEA 8602535
ZK)**

Eibarren, 2024ko apirilaren 17

BILDUTA

Haurreskolak Partzuergoaren aldetik:

Xabier Aizpurua Telleria eta Eugenio Jimenez Ibañez, Haurreskolak Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordearen kide gisa


Langileen aldetik:

Hiart Cabrera Ansola, Haurreskolak Partzuergoan ordezkartzaren %53,19 duen LAB sindikatuaren ordezkari gisa.

Sonia Perez Arce, Haurreskolak Partzuergoan ordezkartzaren %29,79 duen STEILAS sindikatuaren ordezkari gisa.



ADIERAZI DUTE:



Haur-hezitzaile lanpostuaren ezaugarriak kontuan hartuta, eta erretiroa hartu aurretik jarduera pixkanaka murrizten lagunduko duten neurri moduan, Haurreskolak Partzuergoaren Lan-Hitzarmenaren 52. Artikuluan jasota dator 60 urtetik gorako hezitzaileek haurrei zuzeneko arreta emateko denbora egunean bi orduz murrizteko aukera, denbora hori koordinaziorako, prestakuntza lanetarako eta zentroaren antolaketa orokorrerako erabiliz.

Murrizketa horretan aurrera egiten jarraitzeko borondatearen adierazpide, Haurreskolak Partzuergoaren 52. Artikulua aldatzea erabaki dute aldeek

Horrenbestez, goian adierazitakoa kontuan izanik, honako erabakia hartu dute:



AKORDIOA

1.- 60 urtetiko gorako langileen lanaldiaren murrizketa.

Haurreskolak Partzuergoaren Lan-hitzarmenaren 52. artikulua aldatzea **erabaki da**, honela idatzita geratuko dena:

"52. Artikulua.- 60 urtetik gorako langileak

1.- 60 urtetik gorako langileei zuzeneko arretarako denbora murriztea. 60 urtetik gorako hezitzaileek hurrei zuzeneko arreta emateko denbora murriz dezakete, egunean bi orduz. Denbora hori perstakuntza lanetarako eta zentroaren antolaketa orokorreko lanetarako erabiliko da.

2.- 63 urtetik gorako hezitzaileak, aurreko idatz-zatian adierazitako murrizketaren ordez, ez-ohiko lanaldi murrizketa eskatzeko aukera izango du, baldin eta errelebo-kontratua hitzartzeko baldintzak betetzen ez baditu. Edonola ere, neurria bertan behera geratuko da hezitzaileak ondoren errelebo-kontratua sinatzen badu. Murrizketa hori bere lanaldi osoaren herena izango da eta ez du eraginik izango ordainsariatzen.

Ez-ohiko murrizketa hau metatu ahal izango da eta osorik gozatu dagozkion egunak ikasturte bakoitzaren amaieran."

Akordio hau sinatzen da Haurreskolak Partzuergoaren mendeko lan-legepeko langileentzako 2008ko Hitzarmen Kolektiboaren gainerako artikuluen negoziazioarekin jarraitzearen kaltetan izan gabe, eta indarrean sartuko da sinatzen den hurrengo egunean.

Elena Aizpuru Segurola eskuordetzen da akordioaren izapidetzea egiteko lan-agintaritzaren aurrean.

Eta hala jasota gera dadin, eta aldeak ados daudela egiaztatzeko, bi aldeek sinatu dute:

Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Sindikatuen aldetik:
Batzordearen aldetik:

